

**Hiri Hezitzailearen
Nazioarteko Eguna**
#EducatingCityDay
2018ko azaroaren 30a
Konplizitateen Sarea josiz



Prentsa-dosierra

2018ko iraila

International Association of
Educating Cities
Association Internationale des
Villes Éducatrices
Asociación Internacional de
Ciudades Educadoras



4. Zer proposatzen du Hiri Hezitzaileen Kartak?

Hiri Hezitzaile bat nolakoa den deskribatzen duten 20 printzipio jasotzen ditu manifestuak, eta jarduketarako estrategiak eta eremuak definitzen ditu.

1990ean Bartzelonan izan zen Hiri Hezitzaileen Nazioarteko I. Biltzarrean egin zen Karta, eta 1994an eta 2004an berrikusi zen; hirietan, tresna politiko eta mugikortasunerako tresna izatea du xede.

5. Zergatik ospatu behar dugu Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Eguna?

25 urte baino gehiagoko ibilbidea egin ondoren, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartearen Batzar Nagusiak azaroaren 30a Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Egun gisa izendatzea erabaki zuen, hezkuntzak aldaketarako tresna gisa duen garrantzia mundu osora zabaltzeko eta hiri-eredu horren aldeko aliatu gehiago lortzeko.

Horrela, 2018. urtean, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Egunaren **hirugarren edizioa** ospatuko da.

Ospakizun global horrekin, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda lortzen lagundu nahi du,aldi berean, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkarteak. Nazio Batuetako estatu kideak, tokiko gobernuak, gizarte zibila, sektore pribatua eta beste eragile batzuk elkartuta elkarrizketa bidez egindako agenda horrek (ez zen inoiz horrelakorik egin) garrantzi berezia ematen die hiriei (Garapen Iraunkorrerako 11. Helburua) eta guztiontzat eta bitzita osorako kalitatezko hezkuntza bermatzeari (GIH 4).

6. Noiz ospatuko da?

Jarduerak **azaroaren 30ean** egingo dira, 1990. urtean egun horretan Bartzelonan Hiri Hezitzaileen Karta aldarrikatu zela ospatzeko; hala ere, aste osora zabal daitezke jarduerak. Hiri guztietako jarduerak egun berean garatuz elkartearen izaera globala ikusarazi nahi da.

7. Non ospatuko da?

Parte hartzera gonbidatuta daude elkarteko hiri guztiak, eta baita bitzita osoan zehar eta guztiontzat kalitatezko hezkuntza inklusiboa oinarri hartuta garapen pertsonalerako eta kolektiborako aukerak eskaintzen dituzten hiriak eraikitzeko konpromisoa hartu nahi duten gainerako hiri guztiak ere.

Sare sozialak (Twitter, Facebook, Instagram, etab.) aliatu egokiak izan daitezke herritarrak mobilizatzeko orduan. Ildo horretatik, #EducatingCityDay hashtaga erabil daiteke, jardueren berri emateko orduan, @EducatingCities aipatuz.

Herritarren konpromisoak biltzeko, mosaiko bat ere egin daiteke.

Konpromiso mota hau hurrekin eskoletan, gizarte-etxeetan edo familiekin aire zabaleko lantegietan lantzeko, “Konpromisoa hartzen dut” **origamia** (lantzen ari gara) proposatzen dizuegu; bizikidetzeta sustatzeko eta gure hiria hobeto zaintzeko txikienekin egin daitezkeen 8 ekintza ageri dira bertan.

8.6 Jolas-izaerako eta jai-giroko jarduerak

Askotariko ekitaldi eta jardueren antolamendua: kontzertuak, erakusketak, antzerkiak, kirol-erakustaldiak, dantza-saioak, banden emanaldiak, mugikortasun mugatuko pertsonen kirol-erakustaldiak, adineko pertsonen jarduera fisikoa lantzeko lantegiak, belaunaldi arteko arte-erakusketak, zapaldutakoen antzerki-emanaldiak, birziklatze-lantegiak, gaueko piknikak, bizikleta-ibilaldiak, etab.

8.7 Hitzaldi, elkarrizketa eta lantegien antolaketa

Hiri Hezitzaileen Kartaren berri emateko jarduerak dira, hitzaldien, elkarrizketen eta lantegien bidez garatuko direnak, edizio honetan, honako goiburua hartuta: “Konplizitateen Sarea josiz”.

8.8 Zenbait hiriren arteko ekitaldi bateratuak edo sare baten esparruan garatutakoak

Udalerrien arteko lankidetzarako ekimenak dira, estatu barnean, eskualdean edo nazioartean egin daitezkeenak, sareko lanaren balioaz jabetzeko.

8.9 Eskualdeko beste erakunde batzuekin edo tokiko plataforma batzuekin gara daitezkeen ekitaldiak

Hiri Hezitzaileen Kartarekin konpromisoa bere osotasunean hartzeko tokiko gobernuek autonomiarik ez duten lurraldeetan, ospakizun egun hau balia dateke adierazpen bat egiteko eta, horren bidez **berrikuntzak aldarrikatuz**, kartan nabarmentzen diren proposamenen alde egingo duten inguruneak ahalbidetzeko.

8.10 Jardunbide egokiak

Aurtengo beste proposamen bat hiriei beste hiri hezitzaile bateko jardunbide egoki bat errepikatzeko gonbita egitea da. Hauek daude proposamen horien artean:

- Zabalik egunsentira arte (Gijón, Espainia)

Aisialdiko programa osasungarria, doakoa, 13 urtetik 35era bitarteko gazteei zuzendua eta haiek egina, aisialdiko hezkuntzan oinarrituta. Horretarako, asteburuko ordutegian itxita egon ohi diren hiriko zenbait gunek ateak zabaltzen dituzte, gazteek kirol- eta kultura-jarduerak egin ditzaten, gaez bereizik.

- Gaueko piknikak (Rosario, Argentina)

Segurtasun faltari aurre egiteko, doako ekimen aske bat jarri dute abian Rosarion: gonbita egiten zaie herritarrei udako hilabeteetan parke publikoetan bat egin eta beroriez gozatzeko, hilean ostegun batez, gaueko zortzietatik aurrera. Giro-musika eskaintzen da zuzenean, giro goxoagoa sortzeko.

- Oroimena eta bititza (Sao Paulo, Brasil)

Hilerri publikoen, artelanen eta hiriko historian garrantzitsuak izan diren pertsonaien hobien historia ezagutarazi nahi da ekimen honen bidez. Horretarako, bisita gidatuak antolatzen dira egunez eta gauez hilerrietan, musika-saioak eskaintzen dira, edota antzezlanak, erakusketak, filmen eta dokumentalen proiektzioak, prestakuntza-lantegiak...

- Eskolak monumentu bat adoptatzea (Turin, Italia)

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiei zuzentzen zaien proiektu honen helburua belaunaldi berriak ondare historikoa zaindu eta gordetzeak duen garrantziaz sentiberatzea da. Horretarako, monumentu bat adoptatuko da. Proiektu honen bidez, ikastetxe bakoitzak monumentu bat hartuko du, eta haren arduradun bihurtuko da, hiru urtez; monumentu hori sakonkiago ezagutarazteko eta herritarren artean haren berri emateko egingo diren jardueren protagonista bihurtuko dira ikasleak, gainera.

- Artea aztertuz: arte-erakusketak ezagutzeko bisita gidatuak eta lantegiak gormutuentzat (Katowice, Polonia)

Gormutuen gizarteratzea sustatzeko eta gizarte-desoreken aurka borrokatzeko, Katowiceko Udalak bisita gidatuak proposatu dizkio kolektibo horri, arte modernoko erakusketak ezagut ditzaten, eta lantegiak ere eskaini dizkie, arteri buruzko beren irudipenak eta sentipenak libreki adieraz ditzaten, gizarte-bizitzan modu aktiboan parte hartuz.

- Ikastetxeetako jolastokiak (Bartzelona, Espainia)

Ekimen honetan, ikastetxeetako jolastokiak ireki dira, familiek, haurrek eta gazteek eskola-ordutegitik kanpo ikastetxeak erabiltzeko aukera izan dezaten, asteburuetan, oporraldietan edo zenbait egun berezitan. Jolas-izaerako jarduerak garatzeko gune bat eskaini nahi zaie horrela, aisialdiaz modu autonomoan eta seguru gozatzeko gune bat.

- Via RecreActiva (Guadalajara, Mexiko)

Igande guztietan, 6 orduz, ibilgailuen zirkulazioa debekatzen du kale nagusietan Guadalajarako Udalak, herritarrek hiriaz goza dezaten, oinez, bizikletaz, patinekin, kirolen bat eginez, familian paseatuz...

- Night run (Torres Vedras, Portugal)

Bizi-estilo osasungarria sustatzea dute helburu Torres Vedrasen, bai eta hiria hobeto ezagutzea eta espazio publikoaz jabetzea ere, hirian zehar gauez ibilbideak eginez. Monumentu bat, eraikin enblematiko bat edo beste puntu interesgarriren bat hautatzen da astero, parte-hartzaileak handik igaro daitezen eta hiriko txokoak ezagutzeko aukera izan dezaten.

- Giza Liburutegia (Mexiko DF)

Giza Liburutegian kontsultatzen diren liburuak "giza liburuak" dira; beren egoera pertsonalaren edo baztertua izan den talde bateko kide izatearen ondorioz, kontatzeko zerbait duten pertsona boluntarioak dira, eta liburu bihurtzen dira. Proiektu honek aurreiritziak eta estereotipoak murrizteko aukera ematen du, eta elkarrizketa eta elkar ulertzea sustatzen ditu.

9. Zer gertatu zen nazioarteko egunaren aurreko edizioan?

11 herrialdetako eta 4 kontinentetako 133 hirik parte hartu zuten nazioarteko egun honen bigarren edizioan.

Elkarte honetako alkateek manifestu bat landu zuten elkarrekin, hiriko hezkuntza-eragileen lana aitortzeko, “Hiri Hezitzaileako Eskubidea” goiburuarekin. Manifestua publikoki irakurtzeko gonbita egin zitzaizen udalerrri guztiei, eta udalerrian hezkuntzari egin dioten ekarpenagatik nabarmendu diren pertsoneri edo erakundeei esker ona adierazteko, txalotze-ekitaldi kolektibo bat egin zen. Zenbait herritan, udalbatzak onartu zuten manifestua.

Gainera, nazioarteko eguna ospatzeko, adin guztietako pertsoneri zuzendutako askotariko ekitaldiak antolatu zituzten hiriek: hitzaldiak, elkarrizketak, lantegiak, erakusketak, bisita gidatuak, atek zabaltzeko egunak, haurren udalbatzak, sari-banaketak, bandera-igotzeak, jarduera ludiko eta kulturalak espazio publikoan, gaueko piknikak, kontzertuak, bizikleta-ibilaldiak, konpromisoerik buruzko horma-irudiak, etab.

Guztira, 18 herrialdetako 187 alkatek egin dute bat nazioarteko egunarekin. Askotariko erakundeek babestu dute, gainera, egun hau: NBE-Habitat, Ciudades y Gobiernos Locales Unidos (CGLU), ICLEI, Mercociudades, CLACSO, Metropolis, OEI, Lleidako Unibertsitatea, Vrije Universiteit Brussel, Santa Feko Gobernuak, Juan Lasarte Osasun Institutua, Eugènia Balcells Fundazioa; eta mundu osoko adituek ere babestu dute.

Hiriek askotariko bideoak helarazi dizkigute, antolatutako jarduereri buruz; hemen ikusi ditzakezue: [2017](#) eta [2016](#).

10. “Konplizitateen Sarea josiz”, 2018ko edizioaren goiburua

Nazioarteko Egunaren lehen edizioan, tokiko gobernuen betekizun hezitzailea azpimarratu genuen, eta, bigarrean, hiriko hezkuntza-eragileek Hiri Hezitzailearen Eskubidea gauzatzeko egindako lana azpimarratu nahi izan zen. **Sareak jostea** duen garrantzia azpimarratu nahi izan da edizio honetan, eta proiektu partekatu honen eraikuntzan aliatu berriak bilatu nahi izan dira, ahalik eta pertsona, erakunde, elkarte, GKE, tokiko gobernu eta parte-hartzaile gehienekin **konpromisoa** eskatzen baitu.

11. Zer eginkizun betetzen dute tokiko gobernuak Hiri Hezitzailean?

Ezaugarri hori beren izenari atxikitzen dioten tokiko gobernuak **beren proiektu politikoaren ardatz nagusi dute hezkuntza**. Udaleko instantzietatik eta zerbitzuetatik (hirigintza, ingurumena, mugikortasuna, kultura, kirola, osasuna, etab.) proposatzen eta abian jartzen diren politikak eta jarduketak balio zehatz batzuk helarazten dituztela eta balio eta jokabide horietan hezten dutela jabetu beharra dakar horrek.

